

UDABERRIA

*Jorraillan gaude. Oro da ernemin, zelai, mendi ta soro.
Zugaitzak ostoz, ibarrak lorez saillean zaizkigu jantzi.*

*oiu: «Udaberri da!». Zozoa txortxor, kabigintzan. Izadi
osoa, eder ta alai. Ni ere prest, gertu lanerako. Eta pozerako!
Eta kantatzeko!*

Doiñu: Bilintx-en «Loriak udan...».

Iritxi zaigu —pozari, biotz! — udaberri, aro alai!
Neskatxa duzu anitz kolorez, xarmanta, dirudi elai!
Lurraren pean digu arnastu izadi amak txit arrai:
bazterrak ORO dizkigu jarri bailitzan milla sastakai.

Oi neskatx sábe], dena duzuna bizi ederrez betetzen!
Egurats epel onuratsuz dizkizu landak loretzen;
ibar egalak dardaka beroz aizea dute ematen,
mendi-zelaiak elkar agurka dantza lerroak margozten.

Kukuak **dio:** «Udaberri **da**; begira, otoi, zelaian! ».
Eman guztiok eres-txintari, ekin aterge alaian;
martínekote ur-gaiñez zailu igaroa **da** ibaian,
arrano beltza zuur, erne dabil aizelari uts airian.

Zozo beltz eta birigarroak soiñutu dute uspela (1);
txepetxa ere, kizi artea, ez dabilkizu motela...
Denon indarrez doiñu zolika eliz-organu bezela,
laster uxatu dute biratik negu arnasa goibela.

Zugaitzak ostoz, ibarrak lorez dira osoan gaur jantzi.
Nik ere, zapla! , soin-giltzak ORO ditut nagiaz erantzi,
eta bertatik adore berriz lanari nakio asi:
jokabile au aintziña baten aitagandik nun ikasi.

(1 Toki itzaltsu.

Illen artean —bai al dakizu?— ugazaba da jorrailla,
urte-gurdian berak darama tenterik labore milla:
izotzik ez-ta, betor lainoa. orrela bedi aprilla:
egunak epel eguzkiz oro ez litzake garai illa.

Praka berriak kukuak legez jantziak ditut pozkiro,
eta kanpora irten naiz goiztik ikustearren zer giro;
nere arloa begipe daukat dena eder ta aundikiro,
begiratu bat —nolako txeraz! — ezarri diot gaingiro.

Illun-ezpaian ezkila eder dorre garaian durunduz...
Len kuzkur nuen soroa daukat enretzen zizta iraduz:
soroko lanak gaur-gero, bada, errez dijoaz ugalduz,
ezin nengoke inolaz ere bi besoak gurutzatuz.

Kortan dauzkadan abere sailak basorantz ditut atera,
aize bikaiñez beuren biriak egurastuaz batera,
ukullu-ormai kare zuritan eman gurarik tankera;
ez bedi, arren, etxe arloan zabartsu ene joera.

Otak (2) txukundu, txitak atera —ingoak ditut onenak—,
urbideak leun euki arretaz, garbitu baita lur-tresnak...
Etxe ondoa beukat apaiñik, ortako nere lerrenak:
lur aratzean (3) sortzen bait dira loretan sorgin urenak.

Egokia dut gaurko garaía: zugaitzik asko inñausi,
berriak sartu, aienak moztu, patatak joratzen asi,
pagotxa bota, iderrak erein, piperrak leiarpe esi,
osoan kenduz kardulatz belar, muskil alperreko ta sasi.

Arrats gorriak eder-aldia ekarri oi du ondoren;
gaur odeiak Uts (4) ñabar jario ditugu oroz ikusten,
biar aro ona dugu ziurrik artoa asteko ereiten:
«Beltza» ta «Gorri» goiztik ekingo diot elkarri uztartzen.

(2) Oillo-aga.

(3) Garbi.

(4) Argi-ertz.

Ola egiñik irauliko dut artorako lur-sail ona,
zentzun-jokoan agertzen bait da nor dugun egiz gizona.
Nola diteke nekazariak galtzea ortaz mugona?
Ura joanda gero ueska? (5). Ez lirzakit. zoriona.

Goizez zati bat, bestea arratsez, gogoz lanari loturik,
golde-erroak lurra ozkatuz bei apal biak aurretik,
ez bero ez otz —biotza txintaz— muskildu gabe astirik,
arło ederra —aurtengo uzta-sall— gertatu dugu beingorik.

Au bai egia! zori gaitzak oi zona zer dan aitortu:
gaur eskolatik gure Mikeltxu odolez zaigu biurtu,
oiuka diost lagun koxkorrak arrika dula zauritu:
lili orde z maiz sasiak zorrotz bidez aurkitzen ditugu.

Belar izpirik ezpedi gero sokil arlean geratu;
kare ta satsa eman ugari, orrekin ez izan damu;
azi-sail auta giroz ereñai satsa gaiñetik zabaldu,
ondorenean erne landarak maiz jorratu ta miaztu.

Merke xamarra datorkigu gaur ogi errea oraingo;
artoa baiña, talo, morokil, eder dalakoan gagoz:
janari ona aberentzako, mamia bezin jan-gogoz.
Bego au zutik: «Gure Deun Markos, astoak azten balegoz».

Jorraila osoz aitu orduko —gero, nagiak leloa—
erein artoa indabaz naste, nabar egiñik lerroa;
goizetikoa mardul datorke, mamitsu bezin sendoa,
udaldi idorra izanik ere izango du ark ondoa,